OIARTZUNGO UDALA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, OIARTZUNGO ELORSORO KIROLDEGIA, MADALENSORO PILOTALEKUA ETA UDAKO IGERILEKUA UDAL INSTALAZIOAK, ZERBITZU EMAKIDAREN BITARTEZ KUDEATZEKO KONTRATAZIOA

INDIZEA

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. INSTALAZIOEN KOKALEKUA ETA DESKRIBAPENA
3. KONTRATUAREN IRAUPENA
4. BALDINTZA OROKORRAK
5. ZERBITZUA USTIATZEA
6. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK
7. KONTRATUAREN EXEKUSIOAREN KONTROLA

ERANSKINAK:

I. ERANSKINA: Planoak

II. ERANSKINA: Udal kirol instalazioen inbentarioa

III.ERANSKINA: URTEKO Kirol jardueren eskaintza 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteak

IV. ERANSKINA: UDA 2019 eta 2021 eskaintzak

V. ERANSKINA: Oiartzungo Udal Kirol instalazioen kontrataziorako ustiapen ekonomikoaren bideragarritasun azterketa

V-I. ERANSKINA: Udal kirol instalakuntzen azterketa ekonomikoa 2021

VI. ERANSKINA: Elorsoro, Madalensoro eta udako igerilekuko 2021 egutegia

VII. ERANSKINA: 2021eko ordenantza fiskalak

VIII. ERANSKINA: Antolatzen diren ekitaldien lanorduen kalkuluak

IX. ERANSKINA: Oiartzungo kirol instalazioen araudia

OIARTZUNGO
UDALA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri berezien honen xedea da Oiartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua udal instalazioak zerbitzu emakida bitartez kudeatzeko irizpide teknikoak ezartzea (hemendik aurrera EL-MA-UD).

Kontratuaren xedea da:

- Oiartzungo Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako Igerilekua udal instalazioetako zerbitzu publikoa emakida bitartez kudeatzea, Oiartzungo herritar guztien jarduera fisikorako.

2. INSTALAZIOEN KOKALEKUA ETA DESKRIBAPENA

2.1. ELORSORO KIROLDEGIA

Elorrondo kaleko 24an helbideratutako Elorsoro Kiroldegia 1997 urtean ireki zen eta egun hainbat kirol jarduera burutzeko guneak eskaintzen ditu, oro har, ondo zainduta dago.

Oiartzungo herrigunearen hegoaldean kokatzen da, lurraren maldari egokituz. 50 x 40 metro inguruko oin laukizuzena du, ekialdean sarbide eta harrera guneak biltzen dituzten bolumen txikiago batzuk erantsirik dituelarik. Atxikitako eraikina? Eraikinaren ardatz luzeenak eki-mendebal orientazioa du, alderik luzeena Elorrondo kalearekin lerrokatzen delarik.

Azalera orokorra 7.200 m^2 da.

Eraikina lau solairutan banatua dago, hona hemen hauen deskribapena:

-1 solairua.- SOTOA

Bertan aurkitzen dira argindarra, gasa eta uraren instalazio orokorrak eta baita igerileku eta eremu termoludikoarenak ere. Bertan aurkitzen dira baita langileen aldagelak ere. Eremu honetara bai kanpotik zuzenean eta baita sarbide orokorreko eskaileretatik ere sar daiteke.

Maila berean baina aldagelen solairutik sartu eta eskaileretatik jaitsita daude aurkitzen dira ciclo-indoor gela (1), gimnasia eta aerobik gelak (2), tatami gelak (2) eta fisioterapia-osteopatia zerbitzurako eremua.

0.- Solairua

Solairu honetan daude sarbide orokorra eta zerbitzu orokorrak, hots: komunak eta aldagelak. Sarrera orokorretik aldagelen eremura sartzen da eta aldageletatik, oin berean, igerilekura eta eremu termo ludikora joan daiteke.

- Igerileku eremua
  - Igerileku handia (25 x 12,5m)
  - Igerileku txikia (12,5 x 6m)
  - Artatze-sorosle gela
  - Biltegia
  - Eremu termoludikoa: tornua, komunak, ontzi terapeutikoa (zisne lepoak, aulki burbuiladunak, ohe burbuiladunak…),sauna finlandiarra, terma aretoa, lurrun bainuko bi gune, putzu hotza, Santiago bidea, sirimiri, eta eskoziar dutxa, bestelako dutxak, oinetako kontraste ontziak, atseden gunea, garbitasun gela.

Solairu honetan sarbide orokorraren aldamenean kafetegia dago eta eraikuntzatik kanpo haurren parkea eta bi padel pista daude.

1.- Solairua

Aldageletatik solairu bat igota, alde batera kirol anitzetako pista dago, bere hormetako pareta batean rokodromoa eta boulderra duena. Rokodromoaren aurreko aldean, biltegia eta larrialdietarako ateak daude.

Beste aldean, kardio- eta gihartze -gelak eta frontoi txikia daude.

Kanpoko sarbidea duten eta oin honetan aurkitzen diren beste instalazioak honako hauek dira: bileretarako gela, bulegoak, hauentzako komunak eta gela itxi bat.

2.- Solairua

Solairu honetan harmailak eta ikuslegoarentzat komunak daude eta harmaila azpian, ikuskizunetan ustiatu ahal izateko kantina bat dago. Sarbide zuzena du kanpotik eta sarbide orokorretik ere igo daiteke aldameneko eskailerak erabiliz.

2.2. MADALENSORO PILOTALEKUA

Madalensoro Pilotalekua Oiartzungo Madalensoro plaza 1, helbidean kokatzen da, udalerriko herrigunea bereganatzen duen Elizalde auzoan. Madalensoro eraikin exentua da, bere oinak 46x25 m inguruko laukizuzen osatzen du, eta oinak 1.150 m2 inguruko azalera du. Pilotalekua +63,00 metro inguruko kotan dago.

0.- Solairua

Eraikinaren egungo sarrera nagusia ipar-mendebaldeko altxaeran kokatzen da, 0 solairuaren +62,00 kotan, batik bat pilota partida profesionalak edota unean uneko ekitaldi jendetsuak ematen direnean. Solairu honetan kokatzen dira txarteldegia eta ikuskizunetan ustiatu ahal izateko kantina bat. Bertatik, erabiltzaileek solairu bat edo bi igo behar dituzte, norbere eserlekura iristeko. Bestalde, solairu honetan, aldagelak eta ikuslegoaren komunak, kantxa jokoa eta solairuetara joateko igogailua daude.

1.- Solairua
Solairu honetara ipar-ekialdeko zein hego-mendebaldeko ateetatik sar daiteke. Bertan, pilota sailak erabiltzen duen gela, komunak, sarrera eta ikusleen eserlekuak daude.

2.- Solairua

Elkarteen lokalak, komunak eta palkoko eserlekuak daude. Elkarteen lokal horiek zuzenean udalak kudeatzen ditu eta kontratu honetatik kanpo geratzen dira.

2.3. UDAKO IGERILEKUA

Udako igerilekua Goizueta kalea 1ean kokatzen da.

9.000 m² ko belardiaz inguratutako igerilekuak, aldagela eta kantinaren eraikinak osatzen dute. Lekua hesitua dago, hesi metalikoa eta ia perimetro osoan landare hesi batez.

Eraikinaren atetik sartzen da, tabernan ezkerraldean dagoen tornua igarota.

Eraikin honetan aurkitzen dira: taberna, aldagelak eta komunak denak oin berean. Kanpoan, kantinaren terraza dago. Beheko oinean daude igerilekuaren instalazio teknikoak eta biltegi orokor bat. Instalazio teknikoen aretoa eta biltegiaren artean beste areto bat dago zuzenean udalak kudeatzen duena eta kontratu honetatik kanpo geratzen dena.

Igerileku eremua hesitua dago eta lau sarbide ditu, bakoitza bere dutxa automatikoez hornitua. Bertan aurkitzen da igerileku bakarra: irregularra eta ludikoa da, 0 m sakonera du alde batean eta bestean -1,4 m. punturik sakonena -1,6 metrotan dago. Aldamenetan bi txirrista ditu alde bakoitzean.

Inguruan belardia eta zuhaitzak daude.

I. ERANSKINA: Planoak

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren gehienez ere urte bat iraungo du, zerbitzua ustiatzen hasten den egunetik hasita eta aldeek kontratua sinatu ondoren. Era berean, kontratuaren hiru luzapen aurreikusten dira, bakoitza urtebetekoa.

4. BALDINTZA OROKORRAK

Kontratu esleipendunaren arrisku eta menturara exekutatuko da. Esleipenaren hasieran inbentario bat emango da, aurrerago azalduko den baldintzetan.

Aipatutako kudeaketa (ustiapen) lanak, hortaz, honako hauek izango lirateke: zerbitzu eta administrazio langileak kontratatzea; instalazioak, makinak, altzariak eta tresneria zaindu, mantentzea eta garbitzea; harrera eta idazkaritza zerbitzuak ematea; sorospen zerbitzua bermatzea; kanpo aldeko lorazaintza lanak egitea, kafetegi zerbitzua eta kirol instalazioak ustiatzea.

Gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira: langile gastuak, zergak, kontribuzioak eta kontratari dagozkion bestelako gastuak; hala nola, jantziak, tresna espezifikoak, mantentze-lanetarako tresna txikiak eta bestelako materialak; esleipendunak ardura hartzen du kontratu honen legezko eta kontratuzko obligazioak betetzeko.

Esleipendunaren kontura izango dira asegurua, elektrizitatea, gasa, telefonoa, konponketa espezializatu, kanpo mantentze-kontratu (intsektu eta arratoi hilketa barne) eta eraikinak mantentzeko gastu guztiak. Uraren kostua Udalaren gain gelditzen da, baina plegu honen 7.7) atalean araututakoaren arabera.

Era berean, hari dagokio EL-MA-UD erabiltzeko finkatutako diren diru kopuruak jasotzea erailtzaileengandik. Horretarako, Udaleko Osoko Bilkurak urtero onartuko dituen prezio publikoak aplikatuko dira. 2021erako behin betiko prezio publikoak (**VII. eranskina**) agirian jasota daude.

Prezio publikoen udal ordenantzan aurreikusitako murrizketa eta prezio osoaren arteko diferentzia Oiartzungo Udalak konpentsatuko dio esleipendunari.

Urtean zehar udal prezio publikoetan jasotako zerbitzuez gain berriren bat eskaini nahiko balitz, esleipendunak prezio proposamena aurkeztu beharko dio udalari nahiko aurrerapenez, Kirol Batzordean informatu eta Tokiko Gobernu Batzarrak onar dezan.

Prezio horiek Udalak onartutako gehieneko preziotzat hartuta, beste proposamen bat aurkeztu ahal izango dute lizitatzaileek, beste prezio eta kontzeptu batzuekin, egokia dela ikusten bada, aintzat hartu eta hobekuntza bezala kontuan hartuko da lehian.

Udalak jarraipen zuzena egingo du, esleipenduna eta aurreko enpresaren arteko koordinazio lanak eman daitezen beharrezkoak diren bilera guztiak antolatuz.

5. ZERBITZUA USTIATZEA

5.1. Zerbitzuaren izaera

Kontratuak xede duen zerbitzua udalaren zerbitzu publikoa izaten jarraituko du.

Honako hauek hartzen ditu:

- EL-MA-UD kirol instalazioen zerbitzuak ustiatzea.
- Kirol zerbitzuak emateko baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea.
- Kirol instalazioen mantentze- lanak, kontserbazioa eta garbiketa.

5.2. Zerbitzuak

5.2.1 Kirol zerbitzuak

Esleipendunak honako jarduera-ildo hauek bermatu beharko ditu kirol zerbitzua eremuan barruan:

a) Eskola kirolaren eremuan

1. Eskola kirolaren alorrean Gipuzkoan indarrean dagoen araudia errespetatuko du esleipendunak, eta baita Oarsoaldeko Eskola Kirolaren Jardueren Urteko Programa ere. Zehatz adierazteko, esleipendunak ezin izango du benjamin eta kimuen kategorietarako ikasleei zuzendutako lehiaketarako kirol jarduerarik antolatu larunbat goizetan ikasturtean, ikastetxeek Oiartzungo Udalaren Kirol Sailaren elkarlanean prestaturiko kiroldegirako lehiaketetarako egutegiak errespetatu behar baitira.

   Nolanahi ere, udalaren kirol arloak urtero onartzen duen Eskola Kirola Programatik kanpo dauden ikasleei zuzendutako jarduera guztiek (DBH 2. maila bitarte) udalaren baimena beharko dute aurretik.

2. Oiartzungo Jardueren Programaren barneko *eskola kirol jarduerak* garatzeko (infantil kategoria bitarte, hura barne) ikastetxeek doan erabiliko dituzte kirol instalazioak, erabilera anitzeko pistara sartzeko lehentasuna izango dute larunbatetan, 09:00tatik 14:00tara eta astelehenetik ostiralera 16:45tik 18:00ra. Halaber, Madalensoro pilotalekuan ere lehentasuna izango dute asteazken eta ostegunetan 16:30tik 18:00ra.

Emakidadunak ordutegi horiek edo ordutegi horien zati bat beste erabilera batzuetarako erabili ahal izateko Oiartzungo Udalaren baimena eskuratu beharko du.

Era berean, igerilekuen erabilera doan erreserbatu beharko du gutxienez benjaminen bi ur jaialdi egiteko, larunbat goizetan izango dira horiek ikasturtearen barnean. Egunak Oiartzungo Udalak zehaztutako ditu urtero, ikasturteari dagokion eskola kirol jardueren programa prestatu ondoren. (8 ordu/urtean gutxi gorabehera).

Gipuzkoako eskolako kirol programaren barneko *Igeriketa jardunaldiak* egiteko, gutxienez bi egunez erreserbatuko da igerilekuen esparrua, eta haietako bakoitzak 3,5 ordu inguruko itxialdiak izango du (7 ordu/urtean gutxi gorabehera).

3. Esleipendunak doan eta lehentasunez erreserbatu beharko ditu Haurtzaro Ikastola eta Elizalde Herri Eskolak igerilekuan egin nahi dituzten saioetarako, gutxienez 25 metroko igerilekuko kale bat eta igerileku txikia, astelehenetik ostiralera, eskola orduen eta eskola ikasturtearen barnean, eta *Igeriketa Sustatzeko Kanpainaren* barneko ikastaroak antolatzeko beharreko ordutegietan, ikastetxeek programa horretan parte hartzea erabakitzen badute.

   Era berean, Igeriketa Sustatzeko Kanpainaren Programaren barneko igeriketa irakasteko zerbitzuak eskaintzeko obligazioa du enpresa esleipendunak, eta horretarako, Oiartzungo Udalak zehaztutako irizpideei jarraituz emango da irakaskuntza. Esleipendunak bere gain hartuko du horretatik etor daitezkeen gastuak, esate baterako, monitoreak eta behar bereziak dituzten kirolariei laguntzeko zerbitzuak.

   Jarduera horiekin loturiko alderdi guztiak (izen-emateak, publizitatea, monitoreak eta abar) Udalak koordinatuko ditu eta ikasturte bakoitzaren hasieran erabakiko da. Ikastetxeak Igeriketa Sustapen Kanpainan izen emateko prozesua amaitu ondoren, esleipendunak bere jardueretarako erabili ahal izango ditu igeriketa kanpaina horiek okupatu ez dituzten espazioak (300 ordu/urtean eta kale bat gutxienez).

4. Esleipendunak doan erreserbatu beharko ditu Haurtzaro Ikastola eta Elizalde Herri ikastetxeak eskola ordu barruan soinketa klaseetarako dituzten beharrak asetzeko udalak baimendutako instalazio orduak. Pistan, eskola orduetan ikastetxeek lehentasuna izango dute eta beste areto edo eremuak erabili nahi badituzte, erabilgarritasunaren baitan erabili ahal izango dituzte.

5. Udalak aurre benjaminentzako jokoen bitartez eta modu ludiko batean gaitasun fisikoak lantzeko egitasmoa du “Muittu!”. Udalak bideratzen duen egitasmoa izanik,

esleipendunak doan eta lehentasunez erreserbatu beharko ditu eurentzako espazioak astelehenetik ostegunera, 16:45-18:00, Elorsoro Udal Kiroldegian.

b) <u>Kirol federatuaren eremuan</u>

Emakidadunak, egoitza soziala Oiartzunen duten kirol kluben alde eta klub horiek entrenamenduak eta txapelketak egiteko, <u>lehentasuna ziurtatu beharko du</u>**.**

Oiartzungo kirol- klub eta -elkarteen ordutegi eta egutegia udalarekin koordinatuta egingo dira eta denboraldi hasieran finkatuko dira. Lehentasuna izango dute gainerako zerbitzuekiko.

Oiartzungo kirol- klub edo kirol -elkarte eta eskualde izaera duten Oarsoaldeako kirol klubentzako bere jarduera nagusia aurrera eramateko, oro har, astelehenetik ostiralera 17:00tik 22:00ra entrenamendurako eta larunbata eta igandeetan irekitze orduetan txapelketetarako eskatu eta Udalak onartzen duen egun eta maiztasunekin:

- Erabilera anitzeko pista
- Tatami gelak
- Madalensoroko frontoia
- Kaleak igerileku handian
- Une puntualetan erabiliak izan daitezken beste espazioak
- Erreserba horietan partaideak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea

Igerilekuan klubaren erabilerak muga batzuk izango ditu erabiltzaile partikularrei zerbitzu egokia ziurtatu ahal izateko. Era horretan, inolaz ere ezin izango dira aldi berean igerileku handiko hiru kale baino gehiago okupatu.

Igerilekuan entrenamenduetarako espazioak lagatzeko kontuan hartuko da CDN Hondar- Irun- Oarsoaldea Bidasoa XXI Elkarteak eta Oarsoaldeako udalek sinatutako hitzarmena eta bertan zehazten diren erabilerak.

Goian aipatutako erreserba horiek Oiartzungo Udalak, Oiartzungo ikastetxe edo klubak egiten dituztenean, ez dute inolako gasturik sortuko ez Udalarentzat ez aipatutako beste entitateentzat, jarduerak sor ditzaken pertsonal gainkostua salbu.

Kirol- klub eta kirol -elkarteek Oiartzun herrian antolatzen dituzten ekitaldien ondoren, partaideei dutxen erabilera bermatu beharko da irekitze ordutegi barruan, antolatzaileek eskatzen dutenean.

c) <u>Parte-hartze kirolaren eremuan:</u>

1. Esleipendunak biztanleko sektore guztiei (pertsona nagusiak, familiak, haurrak, nerabeak, dibertsitate funtzionala dutenak, amak, ikasle, langileei orotara…) zuzendutako jarduerak eskaini beharko ditu, bakoitzak kirola praktikatzeko dituen premiak kontuan hartuta. Halaz ere, 2021-22 denboraldirako eskaintza plegu hauek gai duten lizitazioaren aurretik sortuko denez, egungo kontratu amaieran sortuta dauden ikastaroak gutxienez errespetatu beharko dira, egunetan nahiz ordutegietan, 2022ko ekainak 30 bitartean.

   Behin eskainitakoan, ikastaroetan beharrezko ikasleen gutxieneko kopurura iristen ez bada, eman gabe utzi litezke ikastaro horiek.

2. Esleipendunak, abonatu, ez abonatu eta erabiltzaileak diren pertsonen artean, sustatuko ditu ikastaro batzuk, hain zuzen ere, gimnasia, aerobik eta gimnasia 65 urteko baino helduagorentzat, yoga, pilates, cycling, entrenamendu funtzionala, luzaketa funtzionala, tonifikazioa, eskalada, padela, etab.

3. Esleipendunak rokodromoaren erabilera sustatu beharko du eta horretarako monitore aditua jarriko du dinamizazio orduetarako. Gutxienez urtean 396 orduz arituko da irailetik maiatzera arte astean zehar.

4. Guztientzat kirola sustatze aldera, Udalarekin adostasunean ekitaldi ezberdinak antola daitezke: kirol astea, mugikortasun astea, ate irekiak, ekitaldi kulturalak, ekitaldi solidarioak etab. Kirol klubek eta Udaleko beste sail eta elkarteekin antolatu daitezkeen ekitaldietan partaidetza-lankidetza bermatuko du esleipendunak.

5. Udalak programaturiko jarduera fisikoa sustatzeko euskarri informatikoak jarriko ditu, eta instalazioetan publizitate edo sustapen elementuak jartzeko obligazioa izango du esleipendunak, sexuari eta generoari dagokionez estereotipatu gabeko irudiak erabiliz beti, eta gorputz-ereduen aniztasuna erakutsiz.

6. Kirol instalazioetan deskribaturiko diziplinatan eta instalazioak horretarako duen kirol materialarekin ikastaroak ematea izango da zerbitzua. Esleipendunak klaseetan erabiltzen den materiala berrituko du kalitatezko zerbitzua emateko.

7. Zerbitzua kontratatua duten erabiltzaileak soilik joango dira ikastaroetara, eta horretarako, ikastaro horietako asistentzia kontrolatu beharko du esleipendunak.

8. Edukiei eta datei dagokienean, enpresa esleipendunak urteko programaketa udalarekin adostuko du. 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteko kirol jardueren eskaintza, **III. eranskinean.**

9. Zerbitzuaren kudeaketari dagokionean, Udalak egokitzat hartzen duen ikuskapen teknikoa egiteko aukera emango du esleipendunak uneoro, kudeaketa hori pleguan eta indarrean dauden legezko xedapenetan aurreikusitakoaren arabera bideratzen ari dela egiaztatzeko.

10. Ikaslearen banakako jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du esleipendunak: parte hartzaileen zerrenda pasa eta zerrendetan ageri diren ikasleen asistentzia kontrolatzea. Zerrenda horietan ageri ez diren ikasleei ezin izango zaie klaserik eman.
11. Enpresa esleipendunak ordezkari bat izendatu beharko du Udalarekin solaskide izateko. Pertsona horrek astean gutxienez bi ordu izango ditu zeregin horietarako.
12. Herritar guztiek parte har dezaten irekiak izango diren jolas izaerako lehiaketak jaso ahal izango dira kirol programan.
13. Nolanahi ere, jarduera fisiko gidatuen eskaintzak honako eduki hau izango du gutxienez:

    a) Urritik ekainera bitarteko denboraldiko gutxieneko programa 1.062 plaza eskaini beharko ditu, astean behin, bi eta hiru saiokoak (4.568 ordu inguru):

    Atal honetan eskainitako ikastaro guztiak hiruhilekoak izango dira. Gutxieneko kopurura iristen ez bada, enpresa esleipendunak erabaki dezake jarduera eman ala ez.

    Oporraldi garaian (Gabonak eta aste santuak) asteko edo hamabostaldiko iraupena duten ikastaroak ere eskaini ahal izango dira.

    b) Udako denboraldiko gutxieneko programa 254 plaza eskainiko ditu (325 ordu inguru):

    Atal honetan eskainitako ikastaroak aste batekoak edo hamabostaldikoak izan ahalko dira. Udalak gutxieneko eskaintza hori eguneratu ahal izango du ikasturte bakoitzerako, eta horretarako, esleipendunari xehetasun guztien berri emango dio behin-behineko izen-emate edo izen-emate kanpainak abian jarri aurretik. Eguneratze horiek, betiere, errespetatu egingo dute gutxieneko programaren oinarrizko egitura, eta egokitze txikiak besterik ez dira egingo, dagokion ekitaldiko egutegiari egokitzeko eta jardueren artean beharreko koordinaketa mantentzeko egin beharrekoak, batik bat.

Laburbilduz, eskola kirola, kirol federatua eta parte- hartzerako behar diren instalazio orduak honako hauek izan daitezke, banaketa alda daitekeen arren:

	Eskola Kirola	Kirol federatua	Parte-hartze kirola
Igerilekuak	*300 ordu*	*1.176 ordu*	*2.124 ordu*
Aretoak	*85 ordu*	*860 ordu*	*2.444 ordu*
Erabilera anitzeko pista	*330 ordu*	*1.560 ordu*	
Frontoia	*6 ordu*	*1.510 ordu*	
Guztira	***781 ordu***	***5.108 ordu***	***4.568 ordu***

14. Emakidadunak aurreko puntuan zehaztutako gutxieneko eskaintza handitzeko ahalmena izango du jarduera programa hori zabalduta, edo beste edozein sartuta, baldin eta jarduera horiek lehen puntuan aipaturiko helburuak betetzen badituzte. Nolanahi ere, lizitaziora aurkeztutako eskaintzan esleipendunak emateko konpromisoa hartu zuen jarduerak jasoko dira kirol eskaintza honetan.
15. Udalak ekitaldi bakoitzerako programaturiko kirol eskaintza berrikusiko du, Plegu hauetan xedaturikoaren arabera eta Oiartzungo hiritarren interes orokorra baloraturik betiere. Interes orokorreko arrazoiak tarteko, udala ez badago ados emakidadunak prestaturiko kirol eskaintzarekin, lehenengoak erabaki horren arrazoiak azalduko dizkio bigarrenari, eta eskaintza alternatiboa aurkezteko ahalmena izango du esleipendunak.
16. Kirol eskaintzaren ordutegi banaketak, alde batetik, udalaren plangintzari erantzungo dio (5.2.1.c puntuan eskaturiko gutxienekoa), eta gainerakoa esleipendunak erabakiko du, aurreko puntuan xedaturikoari kalterik egin gabe.
17. Emakidadunak jarduera maila berdina mantenduko du emakidak irauten duen guztian, haren edukia alda badaiteke ere.
18. Antolatutako jarduera guztietan, ziurtatuko da, monitore bakoitzeko izena eman duten erabiltzaileen kopuruak ez ditu Udalak zehaztutako erratioak gaindituko.

Ikastaro eta jardueretan izena emateko prozedura

Enpresa esleipendunak bere kontura egingo ditu instalazioetan eskainitako ikastaroetarako izen-emateak, eta prozesu hori baldintza egokietan aurrera eramateko bideak jarriko ditu. Udalak zehaztu ahal izango ditu, hala behar badu, izena emateko prozesuan kontuan hartu beharreko irizpideak, ikastaroetarako plazak lortzeko lehentasunari dagokionean. Ikastaroen izen emateen datuak sexuka desagregatuta jasoko dira.

Urria-ekaina denboraldirako jarduera zuzenduei dagozkien behin-behineko izen-emate, izen-emate kanpainak eta “UDA” kanpaina (herrikoak, eskualdekoak), modu koordinatuan egingo dira instalazio guztietan.

5.2.2. Bestelako zerbitzuak

Osasun programa

Esleipendunak udalarekin lankidetzan jardungo du herritar sedentarioen artean jarduera fisikoa sustatzeko osasun programak aurrera eramateko. Zehatzago adierazteko honako programa hauek garatuko dira:

- ABITTU- Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua (KOZ). Eguneroko ohituretan jarduera fisikoa txertatzeko helburua duena.

  Jarduera fisikorako programan parte hartzeko interesa duen edozein herritarri emango zaio. Zerbitzua aurretiazko hitzorduaren sistemaz funtzionatuko du, eta gutxiengo ordutegia asteko 8 ordukoa izango da, irailetik maiatza arte. Era berean, horretarako gaitasuna duten monitore adituek aholkularitza zerbitzua doan emango diete jarduera fisikoa sustatzeko Udalak beste erakunde batzuekiko (Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila...) dituen lankidetza protokoloetan parte hartzen dutenei. Jarduteko protokoloa Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu duen Mugiment-Gipuzkoa ereduaren araberako izango da.

  Emakidadunak bulego moduko gela bat gorde beharko du KOZ-Abittu programak aurrera eramateko. Horretarako, KOZ-Abittu areto bat izango du doan astelehenetik ostegunera, 09:00tik 11:00etara, irailetik maiatzerarte. (394 ordu)

  Jarduera fisikoari buruzko preskripzioa, orientazio eta aholkularitza pertsonalizatutako ekintzetan, zehaztutako protokoloak beteko dira, beharreko erregistroak eguneratuak izango dituzte eta Udalari beharreko datuak, guztiak sexuagatik desagregatuak, emango zaizkio programen koordinazioa eta haien estatistika datuak mantentzeko.

Fisioterapia, osteopatia, mediku edo antzeko zerbitzua

Esleipendunak osasun zerbitzua eskainiko du abonatuen artean, fisioterapia, osteopatia, mediku edo antzeko zerbitzua. Zerbitzua gutxienez astelehenetik ostiralera emango da eta horretarako pertsona bat jarriko da. Zerbitzuaren erabilera datu estatistikoa jasoko da sexuagatik desagregatuta.

Fitness- gimnasio zerbitzua

Zerbitzuaren helburua da fitness-gelak erabiltzen dituzten erabiltzaileen jarduna monitorizatzea, hau da, haiei aholkuak eta orientabideak ematea, uneoro erabiltzaile guztien segurtasuna ziurtatuz eta erabiltzaileen lehen erreferentzia izatea irtenbide bat aurkitzeko edo zalantzak argitzeko aholkuak eskatzeko orduan.

Monitorea arduratuko da errutinak fitness-geletan egiteaz, eta enpresa esleipendunak ezarritako sistema informatikoan sartuko ditu. Horrela, erabiltzaileak aplikazio honen bidez sar daitezke Fitness-errutina planean.

Zerbitzua doakoa izango da eta emateko gutxieneko ordutegia 8 ordukoa izango da astean, asteartetik ostiralera 16:00etatik 17:00etara eta 19:30etik 20:30era irailetik maiatzera.

Taberna/ kafetegia zerbitzua

1. Esleipendunak, jendearentzat irekia dagoen orduetan, behar bezalako harrera ziurtatuko du kafetegian.
2. Zerbitzu hau Elorsoro Udal Kiroldegian eta Udako Igerileku irekian emango da.
3. Freskagarri eta jakien makinak, hala balitz, kafetegi zerbitzuak berak kudeatuko ditu. Vending zerbitzuak ustiatzean, kontuan hartuko da edari alkoholdunei eta elikadura osasungarri eta ekologikoaren kontzeptuei buruz indarrean dagoen legeria. Nolanahi ere, ezin izango da graduazio handiko edari alkoholdunak saldu, ez eta joko makinarik instalatu ere.
4. Aparteko ospakizun eta jardueretan kafetegia ustiatzeko eskubidea esleipendunarena izango da, Oiartzungo Udalak antolatu edo baimentzen dituen bazkari/afarietan ezik. Ustiaketa hori borondatezkoa izango da eta ez nahitaezkoa.
5. Kafetegi zerbitzua derrigortuta dago gaiaz dauden lege eta arau xedapenak betetzera.
6. Kafetegi zerbitzuaren kudeaketa eskubideak hirugarrenei eskualdagarriak izango dira, horretarako Udalari baimena eskatu beharko zaiolarik. Hala ere, eskualdaketak ez du, inolaz ere, esleipendunaren erantzukizuna aldatuko eta jardueratik ondorioztatutako erantzukizun guztiak bere gain hartu beharko ditu. Edozein azpikontratazioren iraupena eta zehaztasunak kontratazio honetatik ondorioztatzen den kontratuaren menpe egongo dira.
7. Kafetegi ustiaketatik ondoriozta daitezkeen gastu (argi, matxurak etab.) guztien kargu egin beharko du esleipendunak.
8. Jardueraren hasierarako udalak esleipendunari II. eranskinean jasotako makinari eta mobiliarioz hornitua emango dio, baxera, mahai-tresneria eta antzeko material suntsikorrak ezik.
9. Kafetegi zerbitzuan eskainitako produktuen prezioak herriko tabernetako antzekoak izango dira. Azaroaren 30a baino lehen prezio zerrenda aurkeztu beharko da udal oniritzia eman ahal izateko. Hilabeteko epean erantzunik jaso ezean, onartutzat joko da.

Salbamendu eta sorospen zerbitzua

Honako betebehar hauek izango ditu erakunde kudeatzaileak:

1. Sorospen zerbitzuaren helburu nagusia, igerilekuetako babes eta salbamendu zerbitzua etengabe eta era iraunkorrean eskaintzea izango da.

2. Sorospen funtzioetatik eta erabilera kolektiboko igerilekuak erabiltzeko buruzko erregelamendutik eratorritako arau guztiak betetzea eta betearaztea, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuak xedatutakoaren arabera. Araudi horren osagarri modura, Udalarenak diren kirol instalazioetan jarrita dagoen autokontrol plana ere bete beharko da.
3. Elorsoro Udal Kiroldegiko instalazioak jendearentzat irekita dauden egun guztietan eman beharko da, Kiroldegia irekitzen denetik ixteko ordua baino hamabost minutu lehenagora arte; udalak hala eskatuta ordutegi hori aldatu ahal izango da.
4. Beste zerbaitegatik beharrezkoa bada ere (ekitaldi bereziak edo bestelakoak) zerbitzua eman egin beharko da.
5. Enpresa esleipendunak, bermatuko du, egoerak egoera, zerbitzuaren prestazioa finkatutako ordutegian.

Zerbitzu bereziak ematea Oiartzungo Udalari

Esleipendunak Oiartzungo Udal sailek babesturiko interes orokorreko beste behar bati erantzun beharko dio. Hain zuzen ere, Oiartzungo familien haurrak udan hartzeko programa zerbitzua: igeriketa ikastaroak.

Zerbitzu horien prestazioak ez du inolako konpentsazio ekonomikorik ekarriko eta sor litezkeen gastuak lehiaketara aurkeztutako ustiapen kontuan sartuak daudela ulertuko da.

5.3. Instalazioen urteko ordutegiak eta egutegiak

Emakidadunak EL-MA-UDko zerbitzuak ondorengo ordutegi eta egutegiaren arabera eskainiko ditu, eta horiek gutxienekoak izango dira:

Ordutegia:

- **ELORSORO KIROLDEGIA**:

NEGUA:

- ⇧ Astelehenetik ostiralera: 07:00etatik 22:00etara (kirol areto eta esparruak 21:45 arte).
- ⇧ Larunbatak: 09:00etatik 20:30era
- ⇧ Igandeak eta jai egunak: 09:00etatik 14:00etara.

UDARA (uztaila eta abuztua):

- ⇧ Astelehenetik ostiralera: 07:00tik 20:30era.
- ⇧ Larunbatak: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ⇧ Igandeak eta jai egunak: 09:00etatik-14:00etara

- **MADALENSORO PILOTALEKUA:**

Madalensorok, Elorsoroko egutegi eta ordutegia du.

- **UDAKO IGERILEKUA:**

Xanisteban egunean instalazioa itxita egongo da.

Ekaina-abuztua-iraila: 11:00etatik-20:00etara
Uztaila: 10:00etatik 21:00etara

Eguraldiaren arabera instalazioa itxi daiteke.

Egutegia:

1. Lehiaketak antola daitezke, ordutegitik kanpo, antolatzailearen ardurapean.

2. Uda sasoia uztaila eta abuztua hilabeteek osatzen dute (urtero aplikazio eguna alda daiteke hilabete hasieraren aste barruko kokapenaren arabera) eta Udan ekainaren erdialdetik (15an modu orokor batean) irailaren erdialdera iraungo du udako sasoia (urtero aplikazio eguna alda daiteke data horren aste barruko kokapenaren arabera). Beste data guztiak neguko sasoiari dagozkie.

3. Kirol instalazioak gehienez honako jai egunetan ixteko aukera egongo da:

   - Elorsoro Kiroldegia eta Madalensoro Pilotalekua: urtarrilak 1, pazko-igandea eta astelehena, maiatzak 1, abuztuak 3, azaroak 1, eta abenduak 24-25-31.

4. Instalazioetan obrak edo mantentze lanak egiteko, instalazio horiek itxita egon ahal izango dira ondoko irizpide hauekin, betiere Udalak aldez aurreko baimenarekin, presazko arrazoiei erantzuten dietenean izan ezik:

   a) Elorsoro Kiroldegia: hamabost egun gehienez, abuztuan.
   b) Madalensoro pilotalekua: hamabost egun gehienez, abuztuan.
   c) Kiroldegiko edo pilotalekuko instalazioetako espazio bat aldi baterako itxi ahal izateko, beharreko denboraz jakinarazi behar zaie Udaleko arduradunei, eta haiek ontzat hartuko dute edo ez.

Urteko egutegi eta ordutegi proposamena

Urteko egutegia esleipendunarekin adostu eta finkatuko da urteko azken hiru-hilabetea baino lehen.

Oiartzungo Udalak egutegia zein ordutegia aldatzeko ahalmena izango du. Ordutegi desberdinak baimendu ahal izango dira, baina behar bezala justifikatuta.

6. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

6.1. Instalazioetarako sarbidea

Erakunde esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu:

1. Zerbitzuak kontratuan ezarritako jarraitutasunarekin eta erregulartasunarekin emango ditu.
2. Pertsona guztiak baldintza berdinetan onartuko ditu, zerbitzuen prezioa aldez aurretik ordaintzea beste eskakizun gabe. Hala ere, emakidadunak erreserba aurreratuko itxarote zerrendak ezarri ahal izango ditu, edo onarpena onartu ahal izango du zerbitzuaren eskaria asetzen bada edo edukiera gainditzen bada.
3. Instalazioan eskaintzen diren zerbitzu guztietan Kirol Instalazioen Araudi Orokorrean xedaturikoa bete beharko du. (**IX. eranskina**)
4. Esleipendunak erabiltzaileen eskura izan beharko ditu beharreko erreklamazio orri ofizialak, eta horiek kontsumoari buruz indarrean dagoen araudiaren ezarritakoaren arabera izapidetuko dira. Erabiltzaileak instalazioaren funtzionamenduari buruzko kexak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko baliabide egokiak izan behar ditu. Kexa eta iradokizun horiei gehienez hilabeteko epean erantzun beharko zaie, eta jasotako kexei eta haien erantzunari buruzko urteko txostena igorri beharko dio Oiartzungo Udalari.
5. Esleipendunak tornuaren kontrol zehatza eramango du, erabiltzaileen sarrerak eta irteerak kontrolatzeko.

6.2. Izapideak

1. Esleipendunak emandako zerbitzuak, barne hartuko du erabiltzaileei eman beharreko informazioa eta harrera lana irekiera ordutegi osoan, baita eraikuntza eta instalazio eta bertan eskaintzen diren zerbitzu guztiei dagozkienak ere, zainduko delarik instalazioak behar bezala egotea eta emandako zerbitzuen antolaketa egokia. EL-MA-UDen

kudeaketari dagozkion lan administratiboak ere barnean daude, izen-emateak, bazkidetzak, karnetak, alokairuak, sarrerak saltzea besteak beste.

2. Izaera pertsonaleko datuak dituen edozein informazio erabili, komunikatu eta uzterakoan esleipendunak une oro alor horretan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.
3. Kontratuko prestazioa amaitu ondoren, esleipendunak erakunde titularrari erabilitako datu pertsonalak emango dizkio.
4. Esleipendunak abonatu/bezeroen datu pertsonalak (posta elektronikoa, telefonoa…) eguneratuta edukiko ditu zerbitzu-hartzaileekiko harremana eta komunikazio zuzena bermatze aldera, eta, udalaren eskura jarriko ditu, hala eskatzen denean.
6. Instalazioen zaintza eta kontrol zerbitzuak parte hartuko du kiroldegiaren kudeaketan, hau da, administrazio-lanak eta kiroldegiko harrerarekin lotutakoak egin beharko dituzte.

6.3. Langileak

1. Emakidadunak lan eta Gizarte Segurantzaren alorreko legezko obligazio guztiak beteko ditu, eta esleipen honek gai duen zerbitzua ematen duten langileei dagokien ordainsaria emango die gutxienez, gaur egun aplikagarria edo indarrean dagoen hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera. Era berean, ezintasunak dituzten langileak kontratatzeko beharreko legezko baldintzak bete beharko ditu esleipendunak, eta horrenbestez, legeriak zehazten dituen ezaugarri horietako langileen gutxieneko portzentajea egongo da bere plantillan.

2. Subrogaziopeko langileak (baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiriari erantsitako **III. eranskina**). Langile horiek enpresa esleipendunaren kide izatera igaroko dira, eta enpresa esleipenduna aurreko enpresetan onartuta zituzten laneko eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da (antzinatasuna, kategoria profesionala eta lortutako bestelako eskubideak). Enpresa esleipendun berriak horiek guztiak errespetatu beharko ditu.

3. Lan arloan eta lan arriskuen prebentzioan indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko du emakidadunak.

4. Esleipendunak kontratuaren xedea betetzeko beharreko langile guztiak jarri beharko ditu, eta askatasun osoa izango du subrogatutako langileez gain behar dituen giza baliabide guztiak kontratatzeko. Hala ere, esleipendunak honako hauek ziurtatu behar ditu gutxienez: kiroldegian eta udako igerilekuan txanda bakoitzeko kontrolerako eta

jendeari arreta eskaintzeko langile bat, kiroldegian eta udako igerilekuan txanda bakoitzeko gutxienez sorosle bat (Elorsoro Udal Kiroldegian bi sorosle bermatuko dira gutxienez astelehen-ostiral bitartean, irailetik ekaina arte, arratsaldeko 17:00tatik 19:00tara, eta urte osoko larunbatetan eta igande eta jai egunetan), mantenuko langileak (gutxienez 2 langile lanaldi osoan) garbiketako langileak (gutxienez 2,35 langile lanaldi osoan), fitness eta orientatzaile teknikariak, nahiz ikastaroak emateko gaitasuna duten langileak.

5. Prestazioak gauzatzen dituzten langile guztiak esleipendunaren mende egongo dira soilik edo, hala behar badu, enpresa azpikontratatuen mende, ondorio guztietarako, eta ez dute inolako funtzionario edo lan mendekotasun loturarik izango Oiartzungo Udalarekin. Horretarako, eta kontratua gauzatzen hasi aurretik, prestazioak emango dituzten langileak zein diren zehazteko eta pertsona horien Gizarte Segurantzarekiko afiliazio eta alta egoera egiaztatzeko obligazioa du esleipendunak. Kontratua indarrean dagoen bitartean, pertsona horiek aldatu edo ordezkatu ahal izateko Udalari jakinarazi behar zaio aurretik, eta haien lan egoera zuzenbidearen araberakoa dela egiaztatuko du halaber.

6. Kontratatutako langileek gutxieneko titulazioa izan beharko dute beren eginkizunak betetzeko. Instalazio bakoitzerako gutxieneko baldintza hauek ezarriko dira::

   - Instalazioaren arduraduna: Unibertsitateko goi mailako titulua edo enpresak baliokidetutako antzeko ezagupenak eta/edo bere lanbide-sektorean frogatutako eskarmentua.
   - Mantenu langileak: Erdi Mailako Lanbide Heziketa edo enpresak baliokidetutako antzeko ezagupenak eta/edo bere lanbide-sektorean frogatutako eskarmentua.
   - Administrazio langileak: Erdi Mailako Lanbide Heziketa edo enpresak baliokidetutako antzeko ezagupenak eta/edo bere lanbide-sektorean frogatutako eskarmentua.
   - Irakaskuntza teknikariak:

     i. Aerobik, Zunba, Ciclo-indoor eta antzekoak: TAFYD edo FEDA teknikaria, aerobik 2. maila eta jarduera gidatuak.
     ii. Igeriketa: Igeriketa monitorea, TAFYD edo Hezkuntza Fisikoko Diplomatura.
     iii. Aquagym, aquaerobik eta antzekoak: Igeriketa monitorea, TAFYD edo Hezkuntza Fisikoko Diplomatura.
     iv. Yoga, dantzak, tai Chi eta antzekoak: gutxienez 100 orduko prestakuntza espezifikoa irakasgaietan.
     v. Psikomotrizitatea: Irakasle-eskolan gradua, espezialitatea Hezkuntza Fisikoan, Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzietan gradua.

vi. Eskalada: 2. Mailako Kirol Teknikaria Mendi Kirolak edo eskalada modalitatean (Goi Mendiak)
vii. Padela: 1. Mailako Padel monitorea.
viii. Fisioterapia: Fisioterapian gradua.

Aurreko zerrendan ez dauden jardueretarako, baliokidetasuna zehaztu beharko da kualifikazio irizpideetan.

- Sorosleak: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak igerilekuetarako onartutako sorospen titulazioa eta prestakuntza izan beharko dute, bi urtetik behin edo une bakoitzean indarrean den araudiak eskatzen duen aldiro eguneratua.
- Jarduera fisikoko preskripzioa, orientazioa eta aholkularitza, KOZ: Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua edo graduondoa.

Betiere, esleipendunak kirol zerbitzuak emateko kontrataturiko langileen gutxieneko titulazioa indarrean dagoen araudiaren araberakoa izango da, eta bereziki, sektoreko eskumen profesionalei dagokienean legeak zehazten duenaren araberakoa.

7. Emakidadunak instalazioetan herritarrekin harreman zuzena izateko kontrataturiko langileak gauza izango dira beren lana EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta honako hizkuntza -eskakizunak ziurtatu beharko dituzte:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik,

- Zerbitzuaren kudeaketa eta koordinazioaz arduratuko den langileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila daukala (EGA edo baliokidea) egiaztatu beharko du.
- Administrazio lanak burutuko dituzten langileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute.
- Sorosleek Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute.
- Kirol jarduera eta ikastaroetako monitoreek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute. (EGA edo baliokidea).

- Gimnasio-zerbitzuari eta osasun zerbitzuari lotutako langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute (EGA edo baliokidea).
- Bestelako pertsonalak (zaintzaz eta sarbide-kontrolaz arduratzen diren langileek garbitzaile, mantenuko langile…) Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute, ahozko gaitasunean.

Administrazio-pleguaren 20.7 klausulan hizkuntza-irizpideen baldintza orokorrak eta espezifikoak jasotzen dira.

8. Instalazioko langileak halako gisa identifikatu behar dituzte uneoro instalazioko erabiltzaileek, eta horretarako beharreko neurriak hartuko ditu emakidadunak (egiaztapena agerian...).

   Enpresa arduratuko da monitoreek jantzi egokia eraman dezaten. Jantzian "MONITOREA" jarriko du ageriko lekuan, instalazioko erabiltzaileek erraz identifika ditzaten. Era berean, soroslearen jantzian, "SOROSLEA" jarriko du ageriko lekuan, erraz identifika dadin.

9. Mantenuaren funtzionamendu egokiaz arduratuko den pertsona arduraduna izendatuko du esleipendunak, eta pertsona hori izango da mantenuko langile eta lanak koordinatuko dituena.

10. Zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz arduratuko den pertsona bat izendatuko du esleipendunak, eta pertsona hori izango da Udalarekin hitz egingo duena kontratuaren garapenarekin loturiko kontu guztietarako. Izendapen hori Udalari jakinaraziko dio emakidadunak kontratuaren esleipenaren berri jakin bezain laster. Aurrekoaz aparte, instalazioen kudeaketaren Jarraipen Batzordea izendatu ahal izango da, eta batzorde horretako kideak alde bakoitzak izendatuko ditu bere garaian.

11. Esleipendunak bermatuko du unibertsitateko goi mailako titulua duen edo enpresak baliokidetutako antzeko ezagupenak eta/edo bere lanbide-sektorean frogatutako eskarmentua duen lanaldi osoko pertsona bat kontratatuko duela; pertsona horrek kirol erakundeen kudeatzaile izaera izango du, zentroaren arduradun edo gerentea izango den aldetik. Pertsona horrek gainera, parte hartuko du kirol instalazioetako Jarraipen Batzordean eta Kudeaketa Batzordean, deituak direnean.

12. Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea betez, adingabeekin zuzeneko harremana izanez gero langileek Sexu-

delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo baten bidez egiaztatu beharko du egoera hori.

6.4. Eraikina, instalazioak eta ekipamendua

Esleipendunak behar bezala mantendu, kontserbatu eta garbitu beharko ditu instalazioak dituzten erabileretarako.

Instalazioen kalitate estandarrak

Esleipendunak, gutxieneko parametroak ziurtatu beharko ditu, zehazki, airearen kalitatea, argiteria eta tenperatura parametroak bermatu beharko ditu, ezarritako araudien eta herritarren erosotasun eskaeren arabera.

Hornidurak

Esleipenduna arduratuko da instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren hornidura guztiak emateaz eta bere gain hartuko du haien kostua: ura*, gasa, argindarra, produktu kimikoak, garbitzeko materiala… zerbitzua baldintza egokian emateko.

Mantentze lanak eta garbiketa

1. Esleipendunak behar bezala mantendu, zaindu eta garbitu beharko du instalazioa, eta, horretarako, beharrezko baliabide guztiak jarri beharko ditu. Horretarako, mantentze plana eduki eta inplementatu beharko du. Plan horrek honako instalazio hauen mantentze arauemaile tekniko eta legala, prebentiboa, konduktiboa eta zuzentzailea jaso beharko du gutxienez: klimatizazioa, elektrizitatea, ekoizpena, ur bero sanitarioaren metaketa eta banaketa, igerilekuetako ura arazteko sistema, iturgintza-saneamendua, gasa, suteen eta ezustekoen aurkako babes sistemak, elementu estrukturalak, eraikuntzakoak eta funtzionalak.
2. Mantentzea erabatekoa bermearen modalitatean egingo dela ulertuko da; hartara, mantentze lanetarako konponketa eta berrikuspen guztiez gainera, barne egongo dira kontratuaren indarraldian hala eskatzen duten elementuak aldatzeko eta birjartzeko beharrezkoak diren inbertsio guztiak, kontratua amaitu ondoren egoera ezin hobean entregatzeko.
3. Kontratua indarrean dagoen bitartean, jasotako instalazioetan beren xedea betetzeko eraberritze integralaren beharra antzemango balu (egitura, estaldura… eta antzekoak), Oiartzungo Udalari jakinaraziko dio eta egoera onera itzultzeko beharrezko aldaketak sortzen dituen gastuak jabetzaren kontura joango dira. Hala balegokio, Oiartzungo Udalak egingo lituzke obra horiek, betiere lehentasun irizpideen arabera, bere inbertsio- planaren barruan, eta kudeatzailearekin bat etorriz egingo lituzke gutxien erabiltzen diren unean. Nolanahi ere, kudeatzaileak ez luke Oiartzungo Udalaren aldetik inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango instalazioan ematen diren zerbitzuei eragiten dietelako.

4. Kasuan kasuko araudiek eskatzen dituzten mantentze lan guztiak egingo dira, eta gainera, baimendutako langileek egin beharko dituzte, hala eskatzen denean. Era berean, araudiak xedatu adina ikuskapen egin beharko dituzte baimendutako kontrol erakundeek.
5. Kontratua indarrean dagoen bitartean instalazio eta elementu guztien mantentze- lanei aplikatu beharreko araudi guztiak bete beharko ditu. Besteak beste, autobabeserako plana, igerilekuen eta legionelaren autokontrolerako plana eta izurriteak kontrolatzeko…
6. Era berean, II. eranskinean jasotako ondasun guztien garbiketa bere kargura hartuko du esleipendunak, fatxadetako azalera kristaldunak, kanpoko terrazak, eraikinera sartzeko arrapalak, lorategi espazioak eta aparkalekurako espazioa barne.
7. Esleipendunak, lehenengo bi hilabetean, Osasun Sailak onartutako autokontrol plana eta osagarri zaizkion garbiketa- eta mantentze -planak luzatuko dizkio Oiartzungo Udalari non errutinak, aldizkakotasunak eta garbiketa moduak, desinfekzioa, arratoi eta intsektu-garbiketa jasoko diren.
8. Udalak, emakidadunak emaniko Mantentze- eta Garbiketa -Liburuan zehaztutakoa betetzen den egiaztatu ahal izango du edozein unetan. Instalazioen mantentze eta kontserbazio egoeraren inguruan edozein adierazpen egin ahal izango du halaber, eta emakidadunak horri erantzun egin beharko dio.
9. Esleipendunak egindako garbiketa eta mantentze jarduerak jendaurrean jartzeko erregistro sistema bat ezarriko du.
10. Erakunde emakidadunak nahitaez eduki behar du instalazioan dauden ondasun higigarrien eta higiezinen inbentario liburua, haien ezaugarriak, marka, modeloa eta egungo egoera adierazita.
11. Instalazioaren ustiapen kontuen kargura eskuratutako ondasunak instalazioari atxikita geratuko dira, eta Oiartzungo Udalari itzuliko dira emakida amaitzean.
12. Emakidadunak, inolaz ere, ezin izango ditu bere kargura dauden instalazioetan obra edo aldaketak egin aldez aurretik Udalak baimena ematen ez badio.
13. Esleipendunaren kontura izango da zerbitzua emateko behar diren makina, tresna eta produktuak erostea.
14. Plegu honen eranskin gisa, hasieran EL-MA-UD instalazioei atxikitako material, instalazio eta kirol guneen inbentarioa jasotzen da (**II. eranskinean**).

<u>Garbiketa lanak.</u>

Udal instalazioen garbiketa Kirol instalazioetarako onartutako Autokontrolerako Planaren arabera egingo da.

Esleipendunak beharrezkoak diren tresnak, makineriak, produktuak eta garbiketa-material guztiak emango ditu, instalazioen nahiz altzarien behar bezalako kontserbazioa, higienea eta garbiketa egiteko produktu egokiak erabiliz.

Lorazaintza eta kanpoko garbiketa.

Esleipendunak Kiroldegiko eta Udal Igerileku irekietako eremu erantsiak egoera egokian eduki beharko ditu.

a) Eremu berdea.- Elorsoro Udal Kiroldegian, gutxienez urtean lau mozketa egingo zaizkio belardiari eta lau edo bost heskaiari eta Udal igerileku irekietan, heskaiaren mozketa orokorra udako denboraldi hasieran eta asteroko belar mozketa belardian, denboraldiak irauten duen bitartean. Kiroldegiko belardiaren gutxi gorabeherako azalera 4.000 m²koa da eta heskaia 150 m ingurukoa. Udal igerileku irekietan, berriz, belardiak 9.000 m² inguru ditu eta heskaiak 280 m eta 3 m inguruko altuera.

b) Esleipendunak garbiak eduki beharko ditu instalakuntzetarako sarrera inguruko kanpo eremuak.

6.5. Bestelako erreserbak

1. Udalak Elorsoro Kiroldegiko bilera aretoa erabiltzeko aukera izango du, erabileraren kostuak enpresa esleipendunaren kargura izanik.
2. Oiartzungo Udalak baldintza-orri honen xede diren instalazioak erabili ahal izango ditu, kirol ekitaldiak egiteko, UDA kanpainarako, udalekuetarako, kultur jarduerak egiteko etab. Horretarako, esleipendunari jakinaraziko dio, aldez aurretik (ahal izanik hamabost egun lehenago), instalazioak eta zerbitzuak erabiliko dituela, egunak eta orduak zehaztuz.
3. Udalak eskubidea izango du sarrera kobratzeko berak antolatzen dituen jardueretan.
4. Urtean zehar, orientazio gisa honako ekitaldi hauek antolatu ohi dira: Bertso emanaldia, Pailazo emanaldia, ihote festa, Inauterietako ikastetxeen emanaldia, Barrikotea, Elizalde Eguna, Ibargain Musika, Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua, Haurtzaro Ikastolaren Eguna, Haurtzaro Dantza emanaldia, Udalekuen erabilerak, Aurresku eta soinu zahar txapelketa, Xanisteban Dantza emanaldia, Txerri eguna, sokatira, pilota profesionalen partida, Xanistebanetako futbito eta Dantza emanaldia (guztira 270 ordu gutxi gorabehera):
5. Ekitaldi hauetan esleipendunak egin beharko ditu muntaia, garbitasuna eta zaintza lanak. Ekitaldi bakoitzaren xehetasunen arabera, zenbatuko dira ekitaldietako beharrezko diren orduak (**VIII. eranskina**).

6. Goian aipatutako erreserba horiek Oiartzungo Udalak espreski baimendutakoak izango dira eta esleipendunari jakinaraziko zaizkio.
7. Ekitaldia Udalak ez beste norbaitek antolatutakoa denean, udalaren eskumena izango da erator daitezkeen kostuetatik antolatzailea salbuestea, udalak beregain hartuz sor ditzakeen pertsonal gain gastuak, betiere, esleipendunak bere proposamenean eskainitako doako ordu kopurua gainditzen denean.
8. Esleipendunak erabiltzaileei jakinarazi beharko die, bazkidetza kontratua sinatzerakoan, baldintza batzuk alda daitezkeela, udalak interes publikoaren izenean hala erabakitzen badu.
9. Esleipendunak, bestalde, aukera izango du kirol izaerako jarduerak antolatzeko, aldez aurretik Oiartzungo Udalari baimena eskatuta.
10. Nolanahi ere, ulertzen da erreserbak instalazio bakoitzari dagozkion kirol jardueretarako egiten direla, Udalak egindako erreserben kasuan izan ezik.

6.6. Komunikazioa, publizitatea eta irudia

Honako betebehar hauek izango ditu erakunde kudeatzaileak:

1. Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkera eta iruditeria ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen aurkako bereizkeria eragiten duen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestu beharko dute, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren aldeko irudia sustatu beharko dute.
2. Ez ditu instalazioaren izena, kanpo irudia edo barne irudia erabiliko publizitate arrazoiak edo erakundearen intereseko beste edozein arrazoi direla- eta, Udalak aurrez baimen espresa ematen dioenean izan ezik.
3. Instalazioko jarduera edo zerbitzuen edozein hedapenetan, esleipendunaren identifikazioaz gainera (izena, logotipoa...), instalazioren titularitate publikoa azalduko da, eta baita Udalaren logotipoa ere. Zehatzago adierazteko, esleipendunak “ELORSORO” Udal Kiroldegia edo “MADELENSORO” Udal Pilotalekua izena erabili beharko du beti, eta kasu guztietan izena euskaraz jarriko du emakidadunaren edozein jakinarazpen edo inprimakitan.
4. Kartelak edo beste edozein publizitate elementu finko nahiz mugikorrak jartzea Udalaren eskumena izango da.
5. Udalak herriko kirol eskaintzaren inguruan egiten dituen hedapen, jakinarazpen eta ekintza orokorren barnean, instalazioetan dagoen kirol eskaintzaren berri eman ahal izango du, eta baita instalazio horien kudeaketaren emakidadunak antolatzen dituen jarduera eta ikastaroena ere. Eskaintza hori emakidadunaren kargura dauden

instalazioetan ematen dela adieraziko da beti jakinarazpen horietan.

6. Informazio hori eskatzen duten erabiltzaileei, kolektibo batzuek kirol instalazioak erabiltzeko Udalean indarrean dagoen prezio murriztuen erregimenean sartzeko aukeraren berri emango die esleipendunak, eta beharreko udal bulegoetara bideratuko ditu interesatuak.
7. Pertsona erabiltzaile guztiek instalazioaren funtzionamenduari dagokionean beharreko informazio guztia dutela ziurtatuko du. Horretarako, ageriko eta erraz ikusteko moduko leku batean panel bat jarriko da honako hauek adierazteko, euskaraz:
    - Indarrean dauden tarifak
    - Instalazioa zabalik dagoen ordutegia
    - Jendeari arreta eskaintzeko ordutegia
    - Eskaintzen diren zerbitzuak eta programak
    - Erakunde kudeatzailearen izena
    - Instalazioaren izena
8. Instalazioan bertan, jendea erraz iristeko leku batean, instalazioaren funtzionamenduaren eta hartan eskainitako zerbitzuen inguruko abisuak, kexak eta iradokizunak jasotzeko sistema bat ezarriko du esleipendunak, eta noizean behin, sistema horren bidez jasotako informazioen berri emango dio udalari.

6.7. Instalazioen erabiltzaileei gogobetetasun inkesta egitea

Emakidadunak, urtean behin, gogobetetasun inkesta egingo die instalazio bakoitzeko erabiltzaileei. Esleipendunak berak ordainduko du inkesta horren kostua.

Gogobetetasun-inkesta horrek instalazioen erabiltzaile guztiak ordezkatu beharko ditu, datu guztiak sexuagatik banatuta jaso eta tratatuko dira eta erabiltzaileen iritzia jaso beharko du gutxieneko mantentze- eta kontserbazio -mailarekin, kirol-jardueren edukiarekin, kalitatearekin eta aukerarekin, instalazioetarako sarbide- eta lehentasun-sistemarekin, emakidadunaren zerbitzura dauden langileek emandako tratuarekin eta hobetu daitezkeen alderdiekin (galdera irekiak).

Udalak inkestaren ereduaren edukia eta egituraketa gainbegiratu ahal izango ditu inkesta hori abian jarri aurretik, eta emakidadunari beharrezkotzat hartzen dituen egokitze guztiak proposatu ahal izango dizkio klausula honetan xedaturikoa betetzearren. Emakidadunak agindu horiek bete beharko ditu.

Gogobetetasun inkesta horren emaitzak Udalari eman beharko zaizkio ekitaldi bakoitzaren lehen bi hilabeteetan, Baldintza Teknikoen Plegu hauen 7. atalean xedaturikoaren arabera. Emaitza horietan oinarrituta, Udalak kirol instalazioen kudeaketan hobekuntzak egiteko iradokizuna egin ahal izango dio emakidadunari, behar

izanez gero, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguan aurreikusitako zigor erregimena aplikatzeko aukerari kalterik egin gabe.

7. KONTRATUAREN EXEKUZIOAREN KONTROLA

Kontratu honen emakidadunak honako betebehar hauek izango ditu gainera:

1. Emakidadunak Emakidaren diru-sarrera eta gastu guztiak kontabilitate bereizian (une oro erakunde kontratatzailearen eskura egon behar du) eraman beharko ditu, eta behar bezala islatuko dira hitzartutako kontraprestazioetatik eratorritako diru-sarrera guztiak, eta bereizi egingo dira, kontabilitatean, ekarpen publikoetatik datozen diru-sarrerak, erabiltzaileek ordaindutako tarifetatik datozenak eta, hala badagokio, ustiapenetik datozenak.
2. Urtean behin instalazioen ustiapen kontua aurkeztuko du, eta erakunde esleipendunaren berariazko kontutik berezia izango da hori. Kudeaketa Batzordeak eskatzen dioenean eta gutxienez hiru hilean behin, instalazioen behin-behineko ustiapen kontua aurkeztu beharko du.
3. Emakidadunak eskainitako memoria, datu eta proposamenei loturiko dokumentazio guztia eta zehaztutako erlazio juridikoei aplikatu beharreko araudiari buruzkoak Oiartzungo Udalak eskatzen dioenean, bere eskura jarriko ditu ikuskatu ahal izateko. Konpromiso horiek guztiak betetzeko gastuak emakidadunaren kontu eta kargura direla ulertuko da.
4. Instalazioan kirol izaera ez duten jarduera bereziak antolatzeko, aldez aurretik baimena eman beharko du ezinbestean Udalak. Ondorio horietarako, emakidadunak, jarduera hori aurreikusita dagoen eguna baino gutxienez hilabete lehenago jakinaraziko dio Udalari era horretako jarduera bat antolatzeko asmoa duela. Jakinarazpen hori jaso ondoko hamabost eguneko epean Udalak ez badu ezer esaten, isiltasun positiboaren ondorioak izango ditu, eta jarduera horretarako baimena ematen dela ulertuko da.
5. Baldintza ekonomiko-administratibo agiriko 19. Klausulan adierazitako aseguru kontratuak sinatu, formalizatu eta indarrean mantentzea.
6. Plegu tekniko honetan aipaturiko gastuak (hornikuntza, zerbitzu, langilego…) ordaintzea.
7. Ohiko ur kontsumoa ez da ordainduko. Zerbitzu guztien batura eginda, urteko ohiko kontsumo bolumena 19.000 m3-tan ezarri da. Kontsumo hori % 5 baino gehiago igotzen bada, ongi arrazoitu ezean, gain-kontsumoa Oiartzungo udalak onartutako prezioan fakturatuko zaio esleipendunari.

8. Udalak antolaturiko kirolaren sustapenerako jarduera eta kanpainetan lagunduko du.
9. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du zehazten diren epeetan:

Lehenengo urtean (kontratua sinatzen denetik bi hilabete igaro baino lehen, honako dokumentazio aurkeztu beharko da:

a) Autobabeserako plana.
b) Laneko arriskuen prebentziorako plana
c) Legionelosiaren autokontrol plana
d) Igerilekuen autokontrol plana.
e) Mantentze eta garbiketa planak
f) Izurriteak kontrolatzeko plana
g) Euskara plana
h) Berdintasun Plana

Gutxienez hiru hilean behin, nstalazioen behin-behineko erabilerei eta diru-sarrerei buruzko txostena aurkeztu beharko du, honako datu hauekin: harpidetutako pertsonak sexuaren arabera bereizita (ezarritako kategorien arabera zehaztuta), matrikulak sexuaren arabera bereizita, sexuaren arabera bereizitako kirol-jarduerak, etab.

Esleipendunak, **denboraldi bakoitzean ekainaren 30 baino lehen**, bere instalazioetan hurrengo denboraldirako programaturiko eskaintzaren eduki osoa:

a) Hurrengo ikasturteko kudeaketa plana.
b) Hurrengo ikasturteko kirol programa.
c) Hurrengo ikasturteko aurrekontu eta dagokion eranskinen proposamena.
d) Hurrengo urterako tarifa proposamena, ekonomikoki justifikatuta.
e) Hurrengo urtean zerbitzua emateko beharko diren langileen aurreikuspena.

Halaber, **urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen**, amaitutako ekitaldiari dagokion zerbitzuaren itxiera-memoria bat aurkeztuko du, aurreko urtearekin alderatuta. Memoria horretan, datu eta estatistika guztiak sexuaren arabera bereizita egongo dira, honako hauei buruzko informazioarekin:

a) Kirol eremuan:

- Hasierako eta amaierako abonatu kopurua sexuagatik desagregatuak eta ekitaldian zehar izandako aldaketak, finkaturiko kategorien arabera zehaztuak.

- Urteko hilabete bakoitzean saldutako sarrera kopurua sexuagatik desagretuak, finkatutako kategorien arabera.
- Kirol instalazio bakoitzean izandako sarrera kopurua hilabeteka sexuagatik desagretuak, abonatuak eta ez abonatuak bereizita.
- Kirol jarduera gidatuen eta osasun programen kirol memoria eta laburpena: eskainitako jarduera bakoitzeko egutegia, iraupena eta ordutegiak, eskainitako plazak eta azkenean betetako plazak aurkeztuko dira sexuagatik desagregatuak.
- Instalazio bakoitzaren alokairuen laburpena hilabeteka, instalazio bakoitzean alokaturiko orduak zehaztuta.
- Bezeroari eginiko gogobetetasun inkestaren emaitzak (Plegu hauen 6.9. atalean jasotako irizpideen arabera). Emaitzak sexuagatik datu desagregatuak eta genero adierazleak jasoko dira sexuagatik desagregatuak eta genero adierazleak.
- Gertaturiko gorabehera nagusien azterketa: erreklamazio-iradokizunak sexuagatik desagregatuak, sorospen zerbitzuari loturikoak, mantenuan, antolakuntza alderdietan, ekitaldietan, eta abar.
- Hurrengo ikasturte egutegi eta ordutegi proposamena.

b) Ekonomia eremua:

b.1.) Urteko ekitaldia amaitutakoan, bere zerbitzuengatik bidali beharreko azken hiruhileko faktura(k) abenduko datarekin aurkeztu beharko dira, eta hurrengo urtarrilak 25 baino lehen.

b.2.) Urteko ekitaldia amaitutakoan, hurrengo otsailak 28 baino lehen:

- Egindako inbertsio eta hobekuntza nagusiak eta fakturen kopiak.
- Hornidura fakturen kopia.
- Mantentze kontratuetako fakturetako kopia.
- Txostena, lizitazioan aurkezten diren kontuekin eta analisi ekonomikoaren egitura berarekin, eta Oiartzungo Udalak hala eskatuz gero, kontu ikuskaritzaren txostena erantsiko da.
- Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren eta kontratatutako gainerako bermeen kopia eta aseguruaren ordainketa eguneratuaren kopia.

b.3.) Fakturarekin batera kontratistak lan arloko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatze aldera honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: langileen lan kontratuen kopiak, gizarte-segurantza ordaindu direlako egiaztagiriak, kasuan-kasuko bankuak zigilatutako nominak, langileen zerrenda eta ordaindutako ordainsaria, lanbide-kategoria, lanaldi motarekin batera eta kontratatutako pertsonen zerrenda sexu arabera bereizita. Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian agertzeagatiko ziurtagiri negatiboa (Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 42. artikuluan aipatzen den ziurtagiria) eskuratzeko baimena

ematea Oiartzungo Udalari. Halaber, kontratazio-organoak agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu, enpresa esleipendunak betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

c) Mantentze eremua:

- Inbentario eguneratua urtearen amaieran.
- Gune eta instalazio guztietako mantentze, garbiketa eta kontrol lanen liburua, eta egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Udalean.
- Hurrengo urteko planak (mantentze-lan, garbiketa, legionelosia, ebakuazioa, autokontrol…) aldaketarik balego.
- Kontsumo datuak: gasa, elektrizitatea eta besteak.

7.1. Zerbitzu arduraduna eta batzordeak

7.1.1 Zerbitzu arduraduna

Udal agintariez gain, zerbitzu arduradun Udal Kirol teknikaria izango da eta bera izango da kontratu gai den zerbitzu osoaren zaintzaz arduratuko den pertsona. Beronen aginduak kontratu betebehar izango dira.

7.1.2 Jarraipen Batzordea

a) EL-MAD-UD kirol instalazioen jarraipen batzorde bat osatuko da, maila orokorrean baldintza orri hauen betetzea ziurtatzeko.

b) Aipaturiko funtzioak betetzeko, Batzordea nahitaez bitan bilduko da urtean ohiko deialdian. Bi bilera horien garaia ustiatzailearekin adostuko dira, urte/ikasturte lan egiteko moduarekin bateragarri izan daitezen.

c) Batzordea beharrezkoa den guztietan bilduko da ezohiko moduan, Lehendakariak, kideen erdiak edota kudeaketa batzordeak horrela proposatzen dutenean.

d) Batzordea ahalduna izango da, bertan aurkeztutako proposamen, kontu eta memoriak onartzeko edo ez.

e) EL-MAD-UD kirol instalazioetako Jarraipen Batzordea honako pertsonek osatuko dute:

- Oiartzungo Alkatea (Batzordeko Lehendakari lanak egingo ditu).
- Kirola kudeatzen duen saileko zinegotzi delegatua.
- Oiartzungo Udaleko idazkaria.
- Oiartzungo Udaleko kontu-hartzailea.
- Oiartzungo Udaleko Kirol teknikaria (idazkari funtzioak beteko ditu).
- Entitate ustiatzailearen hiru ordezkari (instalazioetako zuzendaria horietako bat izango delarik).

7.1.3. Kudeaketa Batzordea

a) Instalazioen kudeaketaren etengabeko jarraipena egiteko osatuko da. Batzorde hau, lehenengo bileran ezartzen den maiztasunarekin eta gutxienez hilean behin bilduko da. Jarraipen Batzordean onartutako planak hemen aztertu, zehaztu eta martxan jarriko dira; baita erabiltzaileen edo beste entitateen aldetik etorri daitezkeen proposamen eta kexak aztertu eta bideratu.

b) EL-MAD-UD kirol instalazioetako Kudeaketa Batzordea honako pertsonek osatuko dute:

- Entitate ustiatzailearen ordezkari bat.
- Oiartzungo Udaleko Kirol teknikaria (idazkari gisa arituko da).
- Egokia iruditzen denean, Oiartzungo Udal Gobernuaren ordezkari bat.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

Digitalki sinatua:
ION TREKU LARRAÑAGA
2021/10/19, 12:12:43

Gazteria eta Kirol teknikaria